

## BEASAINGO UDALA

*Dirulaguntza deia:* 2024. URTERAKO AUZO-TAXI PROGRAMARAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

### 1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea “auzo-taxi” programa arautzea da, bai eta garraio publikoko zerbitzu erregularrik ez duten landa-auzoetan bizi diren pertsonen udalerrian taxia erabiltzeko dirulaguntzak ematea ere. Hauek dira landa-auzoak:

- BEASAINMENDI
- ARRIARAN
- GARIN
- ASTIGARRETA
- MATXINBENTA
- ALTAMIRA
- SALBATORE

Oinarrien hauetarako, Garingo Etxeberri baserria, Astigarreta kontsideratuko da.

“Auzo-taxi” zerbitzua ezingo da inolaz ere, eskola-garraio zerbitzua emateko erabili.

### 2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Eskaera egin dezakete eta onuradun izan daitezke jarraian zehazten diren baldintzak eskaera aurkezten duten egunean betetzen dituzten pertsona fisikoak:

- a) Beasainen erroldatuta 1. Oinarrian agertzen diren auzo batean.
- b) 12 urtetik gora izatea (12-18 urte bitarteko onuradunek, gurasoen edo tutoreen baimena beharko dute).
- c) 38/2003 Legeak (Diru-laguntzen Lege orokorrak) 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere sartuta ez egotea.
- d) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiriak eta Beasaingo udalaren zorduna ez izatea.

### 3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da erabiltzaileak egin beharreko konturako ordainketaren eta bidaiaren benetako kostuaren arteko aldea, Udalbatza Osoak 2023-10-26an oniritzia emandako eta Euskadiko Prezioen Batzordeak onartutako 2024rako tarifen arabera (EEAO, 2023-12-20).

Erdiguneko geltokiak Barrendain plazan edo Osasun Zentruan izan ahalko dira.

### 4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen eskabideak aurkezteko epea. Irekita egongo da partidaren funtsak agortu arte, edo, gehienez 2024. urtean.

Modua:

Aurkeztuko den eskabide-orria II. eranskinean agertzen dena izango da berau Beasaingo Udaleko Herritarren arreta zerbitzuan (i-Gunean) aurkeztu beharko da edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez.

Eskaera egiteko modu elektronikoa aukeratuz gero, Beasaingo Udalaren web gunean dagoen egoitza elektronikoan aurkeztuko dira: [www.beasain.eus](http://www.beasain.eus) eta hemen “*dirulaguntzak*”, atalean.